# Ezeztapena identifikatzeko Murriztapen Gramatikako erregelak sentimenduen analisiaren testuinguruan

Jon Alkorta Koldo Gojenola Mikel Iruskieta
HiTZ Hizkuntza Teknologiako Euskal Zentroa - Ixa (UPV/EHU)
{jon.alkorta, koldo.gojenola, mikel.iruskieta}@ehu.eus

IKER GAZTE 2021
NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

University of the Basque Country
IXA GROUP

## Sarrera eta motibazioa

· **Sentimenduen analisia:** testu bateko informazio subjektiboa erauztea.

· Bertako atazarik ohikoena testuak balorazio positiboa edo negatiboa egiten duen identifikatzea.

(1) Mugikor hori atsegin dut.

(2) Urak 100 gradutan irakiten du.

· Testuen balorazioa identifikatzeko ohiko metodoetako bat sentimenduen hiztegiak erabiltzea da.

| Hitza lexikoian | Balentzia |
|---|---|
| bikain | +5 |
| on | +2 |
| eskas | −1 |
| txar | −3 |

· Horrela, hitzei sentimendu balentziak esleitzen zaizkie.

(3) Antzezlan hori **ez**$_{-4}$ da [bikaina$_{+4}$] izan. = 0

(4) Ikusi dugun filma **ez**$_{+4}$ da [txarra$_{-3}$] izan. = +1

· Metodo honetan, ezeztapen-markak berak ere balentzia bat du (+/- 4) eta balentziadun hitzekin eragiketak gertatzen dira.

## Aurrekariak eta helburuak

· Lanak ikuspegi ezberdinetakoak eta tratatutako hizkuntzak tipologia anitzetakoak.

· **Teknikak:**

1- Hitz-zaku ereduetan oinarritua.

· Pang et al. (2002): hitz bakoitzaren ondoren ezezkoa gehitu.

2- Balentzia-aldatzaileetan oinarritua.

· Polanyi eta Zaenen (2006): zenbait hitzek esaldiaren balentzia eraldatzen dute.

3- Erlazioetan eta dependentzietan oinarritua.

· Esuli eta al. (2008): termino ezberdinen (ezeztapena barne) eragin-eremua aztertu.

· **Gure helburua:**

· Ezeztapenaren irismena identifikatzeko Murriztapen Gramatikako erregelak sortu (2. teknika).

## Metodologia

**1- Marko teorikoa:** Murriztapen Gramatika (Karlsson et al., 2011).

**2- Erregelak sortu.** Urratsak:

1- Euskarazko ezeztapen-marken zerrenda osatu.

2- Ezeztapen-marka hori duten esaldiak erauzi corpusetik.

3- Esaldietako hitzei sentimenduen balentziak esleitu.

(5) Pogostkinak ezin [hobeki]$_{+2}$ atera zituen. (MUS20)

(6) [Irabazi]$_{+2}$ ezinik jarraitzen du Eibarrek. (KIR17)

(7) Ikuspuntu [politikotik]$_{-1}$ ez ezik, [ekonomikotik]$_{+3}$ ere Greziak esperantza ekarri du Europako hegoaldeko beste herrietara, tartean Euskal Herria. (POL08)

4- Corpuseko esaldiak banan-banan eskuz aztertu.

(8) Pogostkinak [ezin hobeki$_{+2}$] atera zituen. (MUS20)

(9) [Irabazi$_{+2}$ ezinik] jarraitzen du Eibarrek. (KIR17)

(10) [Ikuspuntu politikotik$_{-1}$ ez ezik]. [ekonomikotik$_{+3}$] ere Greziak esperantza ekarri du Europako hegoaldeko beste herrietara, tartean Euskal Herria. (POL08)

5- Fenomenoak deskribatzen dituzten sasi-erregelak eskuz egin.

(11) (...) [ezin da baztertu$_{-1}$] ekaitz zaparradaren bat izatea. (EGU35)

(12) [Irabazi$_{+2}$ ezinik] jarraitzen du Eibarrek (...) (KIR22)

| Adb. | Ezeztapen-marka | Erregelen egitura |
|---|---|---|
| (1) | ezin | PM *ezin* + [adjektiboa/adberbioa] (+ atzizki konp.) PM |
| (5) | ezin | PM [ad. nag. + *ezin*] PM<br>PM [*ezin* (+ ad. lag.) + ad. nag.] PM |
| (10) | ez | PM [IS] *ez ezik* PM |

6- Murriztapen Gramatikako erregelak sortu.

```
LIST PUNTUAZIOA = PUNT_PUNT PUNT_KOMA PUNT_BI_PUNT PUNT_GALD PUNT_ESKL PUNT_HIRU PUNT_PUNT_KOMA;

LIST EZ = ''ez'';
LIST BESTERIK = ''beste'';

# (2)
# besterik ez egiturak
MAP (!besterikezHAS) TARGET (DET) IF (0C BESTERIK)   (1C EZ);

(...)
```

**3- Erregelak ebaluatu.** Urratsak:

1- Euskarazko Iritzi Corpusa (Alkorta et al., 2018) prozesatu erregelak ebaluatu ahal izateko.

2- Murriztapen Gramatika formalismoan sorturiko 73 erregelak corpusaren test zatiko 144 testuetan aplikatu.

3- Gramatikak aplikaturiko erregelak eskuz ebaluatu.

```
''<,>''''<PUNT_KOMA>''
        PUNT_KOMA
''<batere>''
        ''batere'' ADB ARR ZERO w39,L-A-ADB-ARR-13,lsfi48 @ADLG %SINT
''<harrotu>''   S:278/0
        ''harrotu'' ADI SIN PART NOTDEK w40,L-A-ADI-SIN-38,lsfi49 @-JADNAG %ADIKAT S:278 !gabeAUR
''<gabe>''   S:141/0
        ''gabe'' ADB ARR ZERO w41,L-A-ADB-ARR-14,lsfi50 @KM> %SINT S:141 !gabe
''<$.>''''<PUNT_PUNT>''
        PUNT_PUNT
```

## Emaitzak eta etorkizuneko lanak

### 1- Erregela-kopurua

| Erregela | | Kopurua | | Kopurua |
|---|---|---|---|---|
| LIST motakoak | | | | **24** |
| MAP motakoak | | | | **73** |
| | Orokorrak | 3 | EDO/EDOTA/ALA EZ | 4 |
| | Egitura lexikalizatuak | 10 | EZ... EZ... | 4 |
| | EZIN | 18 | EZ | 14 |
| | SALBU | 4 | GABE | 3 |
| | IZAN_EZIK | 5 | EZTA | 9 |
| | EZ_EZIK | 1 | | |

### 2- Ebaluazio-emaitzak:

| Eragina | Doitasuna | Estaldura | F1 | Hitzak (instantziak): ✓/✗/+ |
|---|---|---|---|---|
| Indartu | 1,00 | 1,00 | 1,00 | 4 (2): 4/0/0 |
| Ahuldu | 0,93 | 0,80 | 0,86 | 1.050 (192): 784/63/203 |
| Eraginik ez | 0,97 | 1,00 | 0,98 | 36 (19): 35/1/0 |
| **Guztira** | 0,93 | 0,80 | 0,86 | 1.090: 823/64/203 |

| | Doitasuna | Estaldura | F1 | Hitzak (instantziak): ✓/✗/+ |
|---|---|---|---|---|
| Ezeztapen-markak | 1,00 | 0,96 | 0,98 | 195 (195): 188/0/7 |
| Egitura lexikalizatuak | 0,96 | 1,00 | 0,98 | 28 (16): 27/1/0 |
| Irismena | 0,91 | 0,75 | 0,82 | 867 (195): 601/63/196 |
| **Guztira** | 0,93 | 0,80 | 0,86 | 1.090: 823/64/203 |

### 3- Etorkizuneko lana

· Ezeztapen-marken corpusa handitu erregelak hobetzeko.

· Erregelak sentimenduak sailkatzeko euskarazko tresna batean inplementatu.

**Erreferentzia bibliografikoak.** Pang, Bo, Lillian Lee, eta Shivakumar Vaithyanathan. 2002. Thumbs up? sentiment classification using machinelearning techniques.arXiv preprint cs/0205070. Polanyi, Livia, eta Annie Zaenen. 2006. Contextual valence shifters. In Computing attitude and affect in text:Theory and applications, 1–10. Springer. Esuli, A. 2008. Automatic generation of lexical resources for opinion mining: models, algorithms and applications. In*Acm sigir forum* (Vol. 42, No. 2, pp. 105-106). New York, NY, USA: ACM. Alkorta, J., Gojenola, K., & Iruskieta, M. 2018. SentiTegi: Semi-manually Created Semantic Oriented Basque Lexicon for Sentiment Analysis.*Computación y Sistemas*, *22*(4). Karlsson, F. 2011. Designing a parser for unrestricted text. In *Constraint grammar* (pp. 1-40). De Gruyter Mouton.